



Lana / La obra

Maryse Condék haurtzaroan eta nerabezaroan izan zuen kanbiamenduaren kronika ernagarria da *Bihotza negar eta irri* (Ene haurtzaroko istorio egiazkoak, azpigituluaz): 17 kontakizun labur, bakoitza gertakari baten inguruan apailatua, baina guziak hari mehe ia ikusezin batez josiak, zeinak betiere zalu eramanen baitu irakurlea kontakizunak ikimiliklik irenstera, axaletik irakurritz, edo mauska-mauska hausnartzera, soseguz leituz. Orotan planteatzen zaigu gogoetarako gai bat gutienez, maistraki testuingurutua gertakariaren ibili xehe bezain airosaren musika-doinuan.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Bihotza negar eta irri**
Azpigitulua / Subtítulo: Ene haurtzaroko istorio egiazkoak
Egilea / Autor: **Maryse Condé**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 180
ISBN / EAN: 978-84-9109-684-9
Salneurria / Precio: 14 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 152
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 19,5 cm
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



Egilea / El autor

Maryse Condé idazle guadaluperrari (1937) Literaturako Nobel alternatiboa eman zioten 2018an, Nobel ofizialaren eskandaluen ostean. Lehendik ere ezaguna, batez ere frankofonian; handik kanpo ere bai, Richard Philcox-ek ingelesera itzultitako eleberriei esker. Berrogei urte bete ostean argitaratu zuen lehen nobela. Harrezkero, idazle prolificoa izan da: eleberriak, kontakizun biografikoak, saiakerak... denetarik idatzi du. Lizeoko irakasle, unibertsitateko irakasle, arrazakeriaren, kolonialismoaren, matxismoaren aurka politikoki engaiatua, egun jada ezindua hitzaldiak ematen segitzeko, azken nobela diktatzen dihardu.

Itzultzailea / Traductora

Joxe Mari Berasategi Zurutuza (Zegama, 1955). Ingeles eta Euskal Filologieta lizentziaduna. Beasaingo Lizeoan irakasle; euskara-teknikari Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko NOLEGA atalean; Euskara Zerbitzuen buru Arabako Foru Aldundian. 2018an hartu zuen erretiroa. Ingelesetik itzuli ditu R.K. Narayan, H.R. Wells, Angela Y. Davis eta Kate Chopin; alemanetik, Peter Handke, Marliese Arold eta Leo Perutz.